



# Euskararekiko jarreretatik erabilerara

## MAHAI-INGURUA

Erramun Baxok  
Iñaki Martínez de Luna  
Pablo Sotés  
Koord. Belen Uranga





# 1.- Iruzkina ondorengo datuen inguruan. Jarrera positiboak eta negatiboak

Inkesta Soziolinguistikoa. Jarrera aitortuak

EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERAK		Euskal Autonomi Erkidegoa	Ipar Euskal Herria	Nafarroako Foru Erkidegoa
GUZTIRA	Alde	%64,7 (2006) % 52,1 (2001)	%41,2	% 37,7 (2006) % 21,6 (1991)
	Aurka		%17,6	%34,2 (2006) % 51,8 (1991)
ELEBIDUNAK	Alde	% 85	% 85	% 75
ELEBAKARRAK	Alde	% 50	% 28	% 28





## 2.- Transmisioari dagokionean datuak: Jarrera positiboak eta negatiboak

IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Transmisioa

TRANSMISIOA		Euskal Autonomi Erkidegoa	Ipar Euskal Herria	Nafarroako Foru Erkidegoa
BIKOTE EUSKALDUNAK	Guztira	% 100	% 69	% 66
	Gazteen artean	% 100	% 80	% 98
BIKOTE MISTOAK	Guztira	% 66	% 20	% 20
	Gazteen artean		% 44	% 67





### 3.- Bilakaera: irabaziak eta galerak

TRANSMISIOA		Euskal Autonomi Erkidegoa	Ipar Euskal Herria	Nafarroako Foru Erkidegoa
IKASI	Adina	Gazteak: % 68 Helduak: % 24	Gazteak: % 34	Gazteak: % 59 Helduak: % 26
	Non?	% 48 eskolan	% 24k ikasketak euskaraz	% 41ak oinarriko ikasketak euskaraz
		% 42 eskolatik kanpo	% 52 eskolatik kanpo ikasi	% 65ak eskolaz kanpo ikasi edo hobetu
	Gaitasun erlatiboa	Gehienak gaztelaniaz hobeto	% 76 frantsesez hobeto	% 76 gaztelaniaz hobeto
GALDU	Adina	%72a 50 urtetik gorakoa	% 35a 35-49 urte bitartekoa	Ia 3/4 eremu mistokoak Ia denek 35 urte baino gehiago
	Lehen hizkuntza	% 47arena euskara eta gaztelania	% 48arena euskara	% 76arena euskara eta gaztelania
	Ikasketak	Euskaraz ia inork	Euskaraz ia inork	Euskaraz inork
				% 72 ez da eskolaz kanpo ikasten saiatu





## 4.- Motibazio motak

- Jarrera positiboak arrakastatsuagoak dira hizkuntzak ikasteko
- Motibazio integratzaileak arrakastatsuagoak dira hizkuntzak ikasteko
- EAEn eta Gipuzkoan motibazio instrumentala gazteen artean indartzen (Perales, 1989 eta Hernandez, 2000)
  - Ezagutu bai baina erabili ez:
  - Ezagutza-maila nahikoa ez
  - Ingurune gazteleraduna (familia, lagunartea, auzoa, hiria...)
  - Ohiko harremanetan ezarritako ohiturak,
  - Euskarak ematen duen marka ekidin nahia
- Nafarroan eta Iparraldean aldiz, euskara ikasteko motibazio integratzaileak nagusitzen dira. Non da oreka?





## 5.- Hizkuntza jarrera, euskara eta identitatea. *Euskal Nortasuna eta Kultura XXI. Mendearen hasieran.* Hainbat ideia:

- Kontraesana – Iritzi / jarrera kontrajarriak
  - A) Euskara euskal kulturaren muinean dago
  - B) Euskara ezagutu gabe euskal nortasuna egon daiteke
- Informazio kualitatiboak argi utzi du euskararen garrantzia, mota guztietako taldeek hizkuntza hori hizpide izan baitute, aldeko jarrera nahiz hizkuntza horrekiko axolagabekeria edo distantzia adierazteko izan.





## *Euskal Nortasuna eta Kultura XXI. Mendearen hasieran*

- **EAEn** gehienbat euskal herritar sentitzen direnak gehiengoa. Identitatea nahi finkoa da ez baita uste azken 10 urteetan aldatu denik eta ez baitute uste datozen 10 urteetan aldatuko denik. Euskal herritar nortasuna norberaren borondatean eta euskal herrian bizi eta lan egitean oinarritzen dute batez ere.
- **Nafarroan** talderik handiena gehienbat nafar sentitzen direnek osatzen dute. Ondoren nafar eta espainiar sentitzen direnak eta nafar eta euskal herritar sentitzen direnak. Azken urteotan euskal herritar sentimendua areagotzen ari dela dirudi. Nafarrek euskal identitatea Euskal Herrian sortua izatearekin eta euskal herritar izateko nahiarekin lotzen dute gehien.
- **Iparraldean** jende gehienak frantses kontsideratzen du bere burua. Iparraldeko herritarren Euskal Herrian sortzearekin, euskaraz hitz egitearekin eta arbasoen jatorriarekin lotzen dute euskal nortasuna batez ere.





## *Euskal Nortasuna eta Kultura XXI. Mendearen hasieran*

- Hizkuntzak etorkizunean izango duen betekizunaz serioski hausnartzeko garaia da.
- Gogoeta bat: ez ote den euskalduntzea bezain premiazkoa –edo are premiazkoagoa- gizarte guztiak barneratu dezan euskara guztion ondare dela, eta ez herritar batzuen bakarrik. Ideia hori hedatu ezean, euskara normalkuntzaren izenean egiten den guztia ezerezean geratuko da. Garaia da, beharbada, hizkuntzarekiko jarrerak aldatzeari ekiteko, izan ere, bestelako jarrerak lortzea eta guztien ahaleginak helburu horretara bideratzea bide bat izan liteke etorkizunean euskara normal-normal erabili dadin esparru denetan

